

## INONDIK INORA. 2. DINAMIKA

### **Hurrengo istorioa aztertzeraz goaz...**

*Aste Nagusia da eta Ane lagunekin ateratzeko prestatzen ari da. Behin Euskadin beroa egiten duenez, mini-short batzuekin eta bere bularraldea nabaritzen duen tirantedun kamiseta batekin ateratzea erabakitzen du. Trago batzuk hartzen ari dira eta Gorka deitzen den oso mutil ederra haiekin hitz egiteko hurbiltzen da. Anek mutila erakargarria dela deritzo eta tabernaz aldatzea erabakitzen du, Gorkarekin joanez lagunekin baino. Tonteatzen hasten dira eta musu pare baten eta magreo apur baten ondoren, Gorkak Anek guztiz onartezina dela pentsatzen duen komentario bat egiten du eta Anek deseroso sentitzen dela eta joatea nahiago duela esaten dio.*

*Bere lagunak bilatzera bueltatzen den bitartean, klase-kide bat topatzen du, Ismene, bere lagunetariko batekin, Sandra deitzen dena, eta haiekin geratzera gonbidatzen dute, Anek bere lagunak topatzen saiatzen ari delako baina mugikor guztiak estaldurarik gabe daudelako. Zenbait orduko txantxaren ondoren, Ismene etxera doa eta Ane Sandrarekin geratzen da, oso dibertigarria eta irekia den neska dela ikusiz.*

*Gaua bukatu denean, Sandrak Aneri gustukoa duela esaten dio eta berarekin enrollatu nahi al den galdetzen dio. Orain arte Ane mutilekin baino ez da egon, baina Sandragatik erakarrita sentitzen da, beraz, proposamena ez zaio txarto iruditzen. Biak eroso sentitzen dira eta kaletik doaz, besarkatuta eta noizbehinka musukatuz, Sandraren etxerantz Gorka topatzen dutenean. Gorkak ikusten dituenean Ane iraintzen hasten da “zakil-berotzailea” deituz, berarekin lehen tonteatzen ibili izateagatik, enrollatu gabe, eta bakarrik utzi izanagatik. Orain neska batekin joateagatik biziotsu bat dela oihukatzen dio. Gorkak garrasika iraintzen ditu kaletik dabilen jendea begiratzera gelditzen delarik.*

*Momentu zehatz batean, Gorkak Ane besotik hartzen du eta Anek besoa askatzea eskatzen dio oso serio. Askatzen ez duela ikusita, Sandrak Miren eta Pablori, gertatzen ari dena begiratzen ari diren bi pertsona, laguntza eskatzen die, baina hauek egoeraz paso egitea erabakitzen dute haien arazoa ez dela pentsatuz eta beste kale batetik abiatzen dira. Gaua ez da uste zuten bezala bukatzen, ospitalera joan beharrean aurkitzen dira eta: Gorkak askatzen ez zuela ikusita, Ane bihurritzen saiatu da eta sorbalda dislokatuta bukatu du.*

**Ordenan jarri, handienetik txikienera, istorio honetan gaua horrela bukatu izanaren erantzuleak: Ane, Miren, Gorka, Pablo y Sandra. Nola ordenatuko zenituzke?**